

Fernando Goiogana "Perdi": "Zestaz jokatzeko aukera eskaini nahi dut"

Ermuak zesta puntako pilotari asko izan zituen garai batean. Alex, Arrarte sendia, Alberdi... Baina azkenaldian hutsune haundia izan da, Aitzol Barrondo izan zen debutatzen azkena. Azaroaz geroztik halere, zesta puntako eskola abian dugu Ermuan eta Fernando Goiogana "Perdi" da bere arduraduna. 1980an debutatu zuen. Gaur egun, beteranoen zesta puntako txapelketetan jokatzeko jarraitzen du.

-Nolatan bururatu zitzaizun zesta eskola sortzea?

Betidanik izan dut zesta puntarako grina. Profesional gisa aritu ostean, zeozer egin nahi nuen Ermuan. Beste herri batzuetan ere badabilta eta hemen zergatik ez? Zesta puntaz jokatzeko eskola eskaini nahi nuen.

-Zein adinetako ikasleak dira?

7 eta 8 urteko ikasleak dira. Hasieran 16 inguru hasi ziren eta egun, 10 dabilta.

-Zer moduz moldatzen zara irakasle gisa?

Hainbeste haur gobernatzen, badut nahikoa lan, baina pixkanaka moldatzen


ari naiz. Pazientzia haundia behar da honetan ere.

-Zestak eta pilotak ez dira ohikoak...

Zumez egindako zestak oso garestiak dira. Narruzko pilotak ere berdin. Hori dela eta, Foru Aldundiak gomazko zestak eta pilotak banatzen ditu. Mina hartzeko arriskurik ez da horrela. Adin hauetan teknika ikastea da garrantzitsua. Benetako materialarekin aritzeko gerora ere izango dute aukera.

-Berriatuan, Markinan ere badira goi mailako zesta eskolak...

Gure eskolan maila polita duten pilotariei, Berriatuko nahiz Markinako eskolara joateko aukera eskainiko zaie. Oso



harreman onak ditut hango eskolekin. Nire lana harrobi lana egitea izango da.

-Zein ordutegi duzue?

Ostiralero elkartzen gara Aritzemendi pilotatokian, arratsaldeko 16.30etatik 18:00etara.

-Ikastolako haurrak daude...

Nire asmoa gainontzeko ikastetxeetara ere joatea da. Nonbaitetik hasi behar genuen. Hemendik gutxira gutunak bidaliko ditut etorri nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Haur asko badira, entrenatzeko egun gehiago beharko dira.


-Norbaitek laguntzen dizu?

Momentuz ni bakarrik nabil irakasle gisa, baina haurretako baten aitak "Cuco"k laguntzen dit. Berak ere bultzatu ninduen zesta eskola martxan jartzera.

-Zesta punta ez dago sasoi onenean...

Egun dagoen baino okerrago ezin dela egon uste dut, behea jo du eta. Dena den, ahalegin berriak abian dira eta Eusko Basque enpresak ere, apustu gogorra egin du. Estatu Batuetan ere Texas aldean frontoi berria irekiko omen da 2010erako. Txinan ere proiektuak dituzte esku artean. Poliki-poliki badirudi hobeakuntza badatorrela.

Asier Ibaibariaga




DERMOESTETIKA ZENTRO INTEGRALA

PILAR

ESTETIKA MIXTO ESPEZIALIZATUA
KIROMASAJEA, MEDIKUNTZA HOMEOPATIKOA

ZUBIAURRE 24, 1. ESK.

943 17 30 66



GURE AMETSA

Gure dantza Zure dantza

Gureametsataldea@hotmail.com